

ARTEAko KONPROMISOAK

Gizatasunaren alde, migratzaileen alde, European harrera egin dakien eta libre ibili daitezen, eta neofaxismoaren kontra

Salatzen dugu Europako krisi sozial eta ekonomikoaren errua migrazioari botatzen dion eta krisi horretan elite europarrek duten erantzukizuna ezkutarazten duen diskurtsoaren manipulazioa eta gezurra.

Salatzen dugu EBk, europar gobernu guztiek eta enpresa trasnasionalek migrazio-exodoan duten erantzukizuna: heriotzak, tratu ankerra, esklabotza, deportazioak, zapalkuntza, diskriminazioa eta indarkeria, zeinak ankekeria bereziz burutzen diren emakumeen, adingabeen eta LGTBI pertsonen aurka Europarako bidaiari eta European bertan.

Exijitzen dugu zorrotz bete dadila Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, migratzaile guztiek askatasunez mugitzeko aukera izan dezatela eta European bizi garen gainerakoek eskubide berberak izan ditzatela.

Exijitzen dugu bertan behera gelditu daitezela mugen externalizazioa, europar armagintza eta arma-salmenta, baliabideen harrapaketa eta lurren lapurreta, eta errotik aldatu daitezela egundo politika ekonomiko eta komertzialak.

Exijitzen dugu giza eskubideekin bat datozen migrazio-politikak egin daitezela, bertan behera gelditu daitezela kanporaketak eta pasabide seguruak ezar daitezela beren herrialdeetatik migratu nahi dutenentzat.

Planteatzen dugu badela ordua ez soilik elkartasuna adierazten duten pertsona eta erakunde europar eta migratzaileen kriminalizazio hori geldiarazteko, baina baita pertsona eta erakunde horiek babesteko eta defendatzen dituzten baloreak goresteko.

Konpromisoa hartzen dugu egun eskuin muturreko indar neofaxista eta autoritarioek eta haien jarraitzaileek European sustatzen eta ezartzen dituzten gorroto eta bazterkeriazko politikak errefustazeko.

Konpromisoa hartzen dugu gizatasuna eta elkartasuna Europako bizimoduraren balore gisa defendatzeko.

Konpromisoa hartzen dugu gogorarazteko denok izan garela beti migratzaileak: gure arbasoek, gure gurasoek migrazioen, erbestearen eta berdintasunik ezaren mina eta miseria jasan zituzten -eta seguraski gure seme-alabek eta ondorengoek ere hala jasango dituzte-.

Horregatik guztiagatik, konpromisoa hartzen dugu egun egoera hori pairatzen duten pertsonenganako elkartasun aktiboa adierazteko eta pertsona horiek osotara gure gizarteko partaide kontsideratzeko.